

“INTERNET GOXO-GOXO”

Teknologia Berriak eta Gozoak elkartzen dituen

Euskadiko Lehen Lehiaketa

2008ko apirilaren 25etik maiatzaren 13ra arte



KZguneak, SPRIk, internet&euskadi elkarteak eta Euskadiko Pastelgile eta Gozogile Artisauen sektoreak abian jarri dute teknologia berriak eta gozoak elkartzen dituen ideiarik onena saritzeko lehen lehiaketa (Internet Gozo Gozo). Gozogile artisauak beren ideiak internetez aurkeztuko dituzte eta prestatutako gozoen argazkiak hiritar orok kontsultatzeko aukera izango duen blog batean argitaratuko dira. Laudion, maiatzaren 17an, egingo den “Interneten Nazioarteko Eguna” ospatzera bertaratzen den orok dastatu ahal izango du saritutako gozoa.

KZguneak, SPRIk, internet&euskadi elkarteak eta Euskadiko Pastelgile eta Gozogile Artisauen sektoreak antolatutako lehiaketa maiatzaren 17an ospatuko den “Interneten egunaren” baitan kokatzen da. Interneten Nazioarteko Eguna ahalik eta goxoen ospatzea da ekimenaren xedea.

LEHIAKETAREN BALDINTZAK

Lehiaketan parte hartzeko baldintzak internet&euskadi elkartearen eta KZguneen Sarearen webgunetik (www.kzgunea.net) deskargatu daitezke apirilaren 29tik (asteartea) aurrera. Euskadiko pastelgile eta artisauak internetez bidaliko dituzte beren proposamen gozoak (baldintzek ezartzen dutenari jarraiki) eta Internauten Elkartearen webgunean (www.interneteuskadi.org) argitaratuko dira. Euskadin Interneteko 870.000 erabiltzaile dago, hau da, 14 urte baino gehiagoko biztanleriaren % 47,4.

Lehiaketaren irabazlea 2008ko maiatzaren 14an aukeratuko da. Irabazleari kontratua egingo zaio gozo hauek egin ditzan (oinarrien arabera) eta, beraz, aste-buru horretan Laudiora hurbiltzen den orok doan dastatzeko aukera izan dezan.